

246. zk.

Bigarren aroa

Otsailak 1
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Euskal tradizioarekin
lotutako inauteriak

4. orrialdea



Kirolak

Ganix Miron
Erroibideren
entrenatzailea.

8. orrialdea



Heldu da mozorro sasoa

- 3 Elkarrizketa Iñaki Eizmediri, euskara sustatzailea
- 6 Inkesta Inauterietan mozorrotuko zara?
- 8 Elkarrizketa Belen Martinez, ACUBIko idazkaria
- 9 Bidasoan elkarbizitza jardunaldiak
- 10 Txotx berria Olan
- 11 2015-2016 ikasturterako aurrematrikulazioa
- 12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola DBH 4
- 14 Gazte infor
- 15 Kultur agenda

Jaso ezazu
IRUNERO etxean !!

jarozena@irunero.com 693 828099

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Lehenak aldarrikatzen, azkenak erdiesten



Xabier Kerexeta

2015, aurten laurehun urte dira 1615 izan zela. Pernandok berak baietsiko lukeen egia nabari honek azalpena behar du: mendeurrenak ospatzea (edo deitoratzea edo besterik gabe gogoratzea, baina betiere zenbaki biribilen magia sorgindurik) maite duen gure gizarte honek badu Gipuzkoan aurten zeregin franko. Izan ere, duela lau mende ordura arte hiribildu nagusi zenbaiten mende zeuden herri (hots, parrokia baten inguruko kontzeju) askok lortu zuten askatzea eta hiri (alegia, udal) bilakatzea. Bandoen arteko gerren eta beraz jauntxokerien garaia aspaldi handian bukatuta, hiribilduek babesa ez baina zama eskaintzen zieten. Huraxe izan zen askapena galdetzeko zioa; baina lortzearena besterik zen, eta lortu zuten, bai, orduko maiesteari ontza urre ugari ordaindu zizkiotelako askatasunaren truk.

Duela mende laurdena, orain oso urruti dirudien 1991n, Andoainek ospatu zuen askapenaren 375. urteurrena. Eta orduan txantxetan esaten genion elkarri-proiektu eder polit askotariko batean parte hartu bainuen- ospakizunak burutzeko ekitaldian: beno, 476.ean elkar ikusi arte! Tira, baten batek esan zuen orduan: ni 400.ean hemen egotearekin, konforme. Hortaz, Andoainera joan beharko, ospatzera.

Irunen ez dugulako zer ospatu: askapen mugimendu hartan aitzindari izandakoak, herri judua agindutako lurralderaino eramandako Moises batek nola, orduko hartan ere ez baitzuen Irunek erdietsi Hondarribiarengandik askatzea, hiribildua bezain handia ez bazen, berdintsu zen arren; edo agian horrexegatik. Gure arbasoak, besteak bezala, ordaintzeko prest zeuden, baina gure bizilagunenak askoz ere prestago.

Eta holaxe bizi gara Irunen, beti lehenak aldarrikatzen eta beti azkenak erdiesten. Edo hala dirudi behinik behin. Esaterako: Gipuzkoan egindako lehen "Euskal Lore Jokoak" Irunen egin ziren. Nork esango! Orain, Irun VIVO dagoela jakin dugu, bihotza eta guzti, "bizia" berriz, oso bista onekoendako baino ez omen dago, txiki-txiki eginda.

Aurten herri askok ospakizunak antolatzen dituzten bitartean, guk aldarrikapena ospatu beharko. Inportanteena bidea omen da eta...

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

amaia Terrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Irun atzo Irun gaur

Prudencia Arbide kalea



1949an Udal Osoko Bilkurak San Juan Harria plazatik Eguzkitzaldea kaleraino doan kalea Prudencia Arbide deitzea ebatzi zuen. Prudencia Arbide Zubelzu Irunen jaio zen 1865. urtean, nekazari familia aberats batean. Bere aberastasunak are gehiago handitu ziren Amerikara emigratu zuen ahaide baten herentziarengatik. Familiak udal ospitaleari dohaintza ugari egin zizkion, behartsuei laguntza eman, baita bestelako ongintzak egin ere. Baina bere obrarik handiena Maria Konpainiaren El Pilar ikastetxea sortzeko ekarpen pertsonala izan zen. Irungo neskatoek ikastetxe katoliko batean ikasteko aukera izan zezaten arduraturik eta

Manuel Ugalde eta Jose Egin apaizek aholkatu, 1922an lurrak erosi zituen, eta 1925ean eraikuntza lanak amaitu ziren. 1936an, gerraren ondorioz, eskola hondakin piloa izateraino suntsitu zenean, Prudencia Arbidek berriz ere parte hartu zuen ikastetxea berreraikitzen. Udalak bere eskerrona eraikustearren eta irundar zenbaiten eskariz, 1949an omenaldi bat eskaini zion, *Hiriko alaba kuttun* izendatuz eta kale bat dedikatuz. 1960an hil zen. Goiko argazkian, Jose Ramon Agirretxe alkatearekin eta El Pilarreko lekaime batekin agertzen da, seguru aski 1949ko omenaldiaren egunean. Beheko argazkian, kalea 1982an, bidegurutzeko urbanizazio lanak burutu ziztuztenean.



Iñaki Eizmendi

“Euskarazko bizipenak eta erreferenteak bilatu behar dira”



Iñaki Eizmendi behin baino gehiagotan izan da Irungo kastetxeetan; izan ere urteak dira Irungo Udalak, Euskararen Arloaren bidez, euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekimen martxan dituela. Horietako bat, Klean Bai egitasmoaren baitan "Gurasoak eta ikastetxeak norabide berean" bideratzen den eta EBETEK ematen dituen sentiberatze hitzaldiak.

- Gizarte-hezitzaile ikasketak egin zenituen. Zergatik erabaki zenuen euskararen erabileraren inguruan lan egitea?

Lasarte-Orian Euskara Elkarte sortu zenean hasi nintzen arlo honetan murgiltzen, dinamizatzaile lanetan eta aisialdiko arloan. Beti helburu moduan jartzen genuen euskararen erabilera sustatu nahi genuela, baina gero ez genekien nola egin. Zentzu horretan, baliabideak, tresnak eta ideiak emateko sortu nuen Ebete. Zortzi urte darmatzat dagoeneko gurasoekin eta irakasleekin lanean. Batzuetan Berritzeguneren bidez sortzen da harremana; beste batzuetan, Euskara Elkarteek edo Udalek deituta.

- Zein arazo izaten dute irakasleek klasean, euskararen erabilerari dagokionez?

Irakasleak frustratuta egoten dira, ez dutelako lortzen haurrek eskolan euskaraz egin dezaten. Erru sentsazioak ere izaten dituzte. Egia da haien arduretako bat dela,

baina ulertu behar dute badituztela mugak. Urtean esna pasatzen dituzten orduen %15a ematen dute haurrek eskolan. Gainontzeko guztia gaztelaniaz bizi baldin badute, oso zaila da hizkuntza-ohiturak aldatzea. Hori ezin daiteke helburu izan. Testuinguruaren arabera jarri beharko dituzte helburuak.

- Gurasoen artean bi multzo egiten dituzu. Zein arazo izan dezakete guraso euskaldunek?

Guraso euskaldunen kezka seme-alabek gaztelaniara jotzea da. Irunen oso ohikoa da hori. Gurasoek ezin dituzte haurren hizkuntza-ohiturak aldatu. Baina oinarri sendo bat jar dezakete. Horretarako, eredu egokia ematea ezinbestekoa da. Etxetik euskara aberatsa eskaini behar da, abestuz, jolastuz, ipuinak kontatuz edo irakurtzeko ohiturak landuz. Bestetik, euskarazko bizipenak eta erreferenteak bilatu behar dira: eskolaz kanpoko jarduerak, musika taldeak, ekitaldiak... Guzti hori zaintzea garrantzitsua da.

- Zeintzuk dira guraso erldaldunen kezkak?

Guraso erldaldunei, orokorrean, haurren hizkuntza-ohiturak ez zaizkie axola. Euskaraz ikas dezaten nahi dute, bes-

- Otsailak 3. Osteguna. Belaskoenea ikastetxea. Izenburua: "No sabemos euskera, ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas?"

- Otsailak 10. Asteartea. 19:00etan. Larraundiko Eguzkitza ikastetxean. Izenburua: "Seme-alaben hizkuntza-ohiturak, ulertzetik laguntzera / Hábitos en el uso del idioma: de entenderles a ayudarles".

- Otsailak 12. Osteguna. Elatzeta ikastetxean. Izenburua: "No sabemos euskera, ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas?"

- Martxoak 5. Osteguna. 18:00etan. Toki-Alai institutuan. Izenburua: "Euskaraz ikasten duten seme-alaba eleanitzak. Zer zaindu beharko genuke? /Hijos e hijas plurilingües que estudian en euskera. ¿Que deberíamos cuidar?"

- Martxoak 10. Asteartea. Txingudi ikastolan. 18:30ean. Izenburua: "Euskaraz ikastetik euskara bizitzera / De estudiar en euskera a disfrutar y vivir en euskera".

terik ez. Baina hizkuntza bat ikasteko, asko erabili behar da, eta eskolak muga handiak ditu. Nolanahi ere, guraso erldaldunen beldur handiena haurren etxeko lanak izaten dira. Eman beharreko mezua da badaudela tresnak, eta hizkuntza ez dela muga bat. Garrantzitsua, dependentziak ekidin eta ikasteko autonomia garatzea da. Ohitura egokiak eta motibazioa landu behar dira horretarako.

- Euskal Herri osoko ikastetxeetan izan zara, eta ikuspegi orokorra daukazu. Zein da euskararen egoera, erabilerari dagokionez?

Egoa zaila da. Gaur egun, Euskal Herriko testuinguru gehienetan hizkuntza indartsuena gaztelania da. Faktore asko daude haurrak gaztelaniara jotzera bultzatu ditzaketenak. Baina arazo handiena da gurasoek eta irakasleek ez dutela ulertzen zergatik gertatzen den hori. Eta horrela zaila da lagundu ahal izatea. Mugak onartu eta oinarri sendoak jartzen ahalegindu behar dugu. Ezin dugu pentsatu Irunen hamar urte barru haur guztiek haien artean euskaraz egingo dutenik. Helburu lorgarriagoak bilatu behar ditugu.

haziz eta hobetuz

matrikulazio epea zabalik
otsailaren 2tik 13ra

Toki Alai
IRUN

zatozte gu ezagutzera!

otsailak 4
HHn 2 urteko erakinean,
17:30ean

otsailak 5
DBH 18:00etan, Gazteluzarren

www.tokialai.org

Inauterietako ohitura zaharren babesle

Puska Biltzea, Kaldereoak eta Inude eta Artzainak berreskuratu eta mantendu dituzte Irungo kultur elkarteek

Irundar gehienentzat, larunbat eta igande arratsaldean hiriko erdigunea zeharkatzen duen desfile koloretsua da, gaur egun, inauterietako ekitaldi nagusia. Ezagunena bada, behintzat. Hala ere, badaude inauteria ulertzeko eta bizitzeko beste hainbat modu. Esate baterako, euskal folklorearekin eta tradizioarekin lotutako ekimenak antolatzen ditu zenbait kultur elkarteek. 1980ko hamarkadan, mendearen erdialde ilunean galdutako ohiturak berreskuratzeari ekin zioten, besteak beste, Irungo Atseginak, Kemen Dantza Taldeak eta Eraiki Dantza Taldeak.

Irundar gehienek ezagutzen ez duten arren, Puska Biltzea da Irungo inauterietako ohituretan zaharrena. 1936ko gerraren aurretik, baserriz baseri eskean aritzen ziren gazteak inauterietan, Gabonetan edo Santa Ageda bezperan bezala. Kantatu beharrean, dantza egiten zuten. Oraindik ere, zentzu handia duela uste du Kemen Dantza Taldeko Ander Amantegik: "Inauterietako ohituren artean, logikoena iruditzen zait". Berrogei urteko diktaduraren ondoren, ohitura hura berreskuratzeari ekin zioten Irungo dantza taldeek, 1970eko hamarkadaren amaieran. Baserritarren laguntzaz ikerketa lana egin zuten, gerraren aurretik Irunen Puska Biltzea nola egiten zuten argitzeko. Ekintza sinbolikoa dela azaldu du Eraiki Dantza Taldeko Koldo Riberak: "Dantzatzeaz gain, baserrietako atariak erratzez garbitzen dira, izpiritu txarrak uxatzeko".

Fandangoak eta arin-arinak dantzatzen dituzte taldeek baserrietan, trikitixa eta panderoaren edo txistu eta danbolinaren musikaz. Ondoren, baserritarrek

"Ardura moduan ikusten dugu Puska Biltzea"
Koldo Ribera, Eraiki Dantza Taldea

emandako jakiak edo puskak biltzen dituzte, iluntzean afaria egiteko. Eraiki-koak Behobia eta Bidasoa auzoetako baserrietan ibiltzen dira, inauterietako larunbatean. Kemenekoek igandean egiten dute, Olaberria aldean. Meakako Adixkideak beren auzoan aritzen dira. Talde bakoitza bere kabuz ibiltzen da, ez dago elkarlan zuzen bat. Baina denen artean Puska Biltzearen ohitura mantentzeko ahalegina egiten dute. "Zaindu beharreko zerbait da. Guk oso ondo pasatzen dugu, baina ardura moduan ere ikusten dugu. Ardura da Irungo herriarekiko, eta gure kasuan, Behobia eta Bidasoa auzoekiko", azaldu du Eraiki Koldo Riberak.



Goian, Eraiki antolatutako Puska Biltzearen bi irudi eta Kemeneko dantzariak. Ezkerrean, iazko Inude eta Artzainen konpartsa.

BAKAILAOA DASTA EZAZU





Goian, Adaxkaren Herri Inauteria, behean, Puska biltzea.

Kaldereroak, Inudeak eta Artzainak, Donostiatik

Inauterien aurreko asteburuan, XX. mendearen hasierako ohiturarekiko lotura mantentzen duten beste bi ekitaldi izaten dira. Biek Donostian dute jatorria. Larunbatean, Hungariako Kaldereroen Konpartsa ibiltzen da Irungo kaleetan zehar. Irungo Atsegina elkarteak antolatu zuen lehen aldiz Irunen, 1891n, Donostiako ohituran oinarrituta. Tarteka errepikatu zuen, mendearen erdialdera arte. 1980ko hamarkadan berreskuratu zuen, Kemen Dantza taldearen laguntzaz. Gaur egun, Inauteriei hasiera ematen die Kaldereroen konpartsak. Erregea, erregina, damak eta hartza izaten dira desfileko pertsonaia nagusiak. Kaldereroek lapikoak, zartaginak eta mailuak eramaten dituzte, musikarien doinuari jarraitzeko. Raimundo Sarriegi musikari donostiarrek konposatutakoak dira jotzen dituzten doinuak.

“Dantza eginez parte hartzen dugu
Kaldereroetan”

Ander Amantegi, Kemen Dantza Taldea

Desfilearen amaieran, ijitoen ezkontzaren antzezpena egiten dute San Juan Harria plazan. Kemen Dantza Taldeak parte hartzen du ikuskizunean. Brahmsen 5. dantza hungariarrarekin dantzatzeko koreografia prestatu zuten Kemeneko kideek, 1984ean, Atseginarekin batera Kaldereroen konpartsa berreskuratzeko lanean aritu zirenean. “Gaur egun, talde modura, dantza eginez parte hartzen dugu barririk. Baina jendea animatzen denean, desfilean ere ateratzen gara”, argitu du Kemeneko Ander Amantegik. Eraiki Dantza Taldeak, berriz, desfilean ere parte hartzen du. Duela bi urte jaso zuen Irungo Atseginaren gonbidapena, partaideak galtzen hasia zen Konpartsa indarberritzeko asmoz. Bi elkarten arteko harremana ona dela azpima-

rratu du Eraikiko Koldo Riberak: “Beste hainbat arlotan laguntza eskaintzen digute guri. Beraz, Kaldereroetan parte hartzea ondorio logikoa izan zen”.

Harreman horren emaitza izan zen Inude eta Artzainen Konpartsa, 1997an. 75 urte bete zituen orduan Atseginak eta, ospakizunaren harira, Donostian errotutako ohitura Irunera ekarri nahi izan zuen. Eraiki Dantza Taldearen babesak izan zuen horretarako. Lehen proba egin zuten urte hartan, eta 1999tik aurrera urtero antolatu izan dute. “Konpartsa handituz eta hobetuz joan da. Taldetik kanpoko gero eta jende gehiago animatzen ari da parte hartzera. Gainera, arropa uzten digun jende asko ere badago”. 150 laguneko konpartsa da, gaur egun. XX.mendearen hasieran familia oso dirudunetan haurrak zain-tzen zituzten emakumeak ziren inudeak. Artzainek klase umila irudikatzen dute. Garaiko beste hainbat ofizio ere ikus daiteke. Inauterietako igandeko hitzordu klasiko bilakatu da Inude eta Artzainen antzezpena.

Herri inauteria zabaldu nahi du Adaxkak

- Duela sei urte, inauterietan lotutako beste ekimen bat bultzatu zuen Kemenen harrobi den Adaxka Dantza Taldeak. Herri ezberdin bateko inauteria antzetzten dute urtero. Lantzeko, Altsasuko eta Goizuetako inauteria irudikatu ondoren, aurten Amezketako Talaien ohitura hurbilduko dute Irunera. Amezketan ere puska biltzea egiten dute, makil joko batekin. “Lantzeko inauterietan, adibidez, fama handia hartu du. Baina badaude beste batzuk, Amezketakoa bezala, nahiko ezezagunak direnak”, gogoratu du Kemeneko Ander Amantegik.
- Kemenen inguruko jende guztiak parte hartzen du herri inauterian: Adaxkako haurrek, helduen taldekoek eta larunbat goizetan dantza ikastaroa egiten dutenek ere bai. Haurren gurasoak animatu izan dira azken urteotan. Ander Amantegik azpimarratu du edonorki dela Herri Inauterian parte hartzeko gai: “Inauterietako dantzak ez dira zailak izaten. Egun polita da, gainera, ez delako dantza saio klasiko bat”. **Otsailaren 7an**, Herri Inauteria prestatzeko azken entseguak egingo dute, 11:00etan, Kemen Dantza Taldearen lokalean (Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, 12). Hilaren 14an, Pio XII plazatik irtengo dira Amezketako Talaiak.

2015-16 AURREMATRIKULA / PREMATICULA 2015-16

TXINGUDI IKASTOLA

Eman euskara munduari

Izen-ematea: 2012an jaiotako haurrentzat, otsailaren 2tik 13ra
GURASO INTERESATUENTZAKO HITZALDI INFORMATIBOA
otsailaren 4ari, 17:00etan

www.txingudikastola.hezkuntza.net - 943667055 - 012338aa@hezkuntza.net

INKESTA

Inauterietan mozorrotuko zara?

María Rubio



Aurten, orain dela 20 urteko eskiatzailez mozorrotuko naiz. Galtza arrosa batzuk aurkitu ditut etxean, aurpegi erreta bezala margotuko dut, txano bat jantziko dut eta kitto.

Gustatzen zait etxean daukadan gauzak aprobetxatzea mozorroak egiteko. Normalki ez dut jantzia erosten.

Alvaro Irurieta



Koadrilan hartz pelutxe maitagarriz mozorrotuko gara. Beste urte batzuetan Stichen eta Aladin-en mozorroak aukeratu genituen.

Inauterietan gustatzen zaidan gehiena parranda egitea da. Giro paregabea egoten da eta jendea mozorrotuta ikustea dibertigarria da.

Ana Etxepare



Eztabaida handia daukagu lagunen artean aurtengo mozorroa adosteko. Oraindik ez daukagu ideia asko; ziur aski azkeneko unean erabakiko dugu. Azken urteetan La Sallerekin desfileatu dut, eta txinatarrez eta errusiarrez mozorrotu ginen.

Nire aburuz, La Salleko konpartsa hobereena da.

Brigida Ramírez



Ez naiz mozorrotuko, hotz izugarria egiten du eta. Kallean mozorro oso originalak ikusten dira. Carlos Zapirainekin dantza egin dut, eta, nire ustez, dotoreenak dira. Desfilea ikustea astsegín dut, interesgarria eta polita da.

José Javier Díez



Dantza egitea gustatzen zait; mozorrotzea, ordea, ez.

Irunen, adibidez, desfilean Carlos Zapirainen konpartsa asko gustatzen zait beti; oso dotore mozorrotuta daude eta dantzan primeran egiten dute.

Juan Errandonea



Lagunartean hitz egiten ari gara egunotan denok mozorro berdina eramateko, baina oraindik ez gara ados jarri. Batzuek S.W.A.T. poliziaren mozorroa proposatu dute. Aurreko urteetan dordokaz, untziz eta txitox mozorrotu ginen; animalien jantziak oso goxoak dira eta, parranda egiteko, hobereenak.





Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
kettysacademy@gmail.com

EGONALDIAK EEUUetako famillirekin



Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

Belén Martínez, ACUBIko Idazkaria:

“Asko konparatzen dugu galtza parean aukeratzean, baina batzuetan erosketa garrantzitsuekin, ez”

Hogeita hamar urte bete ditu ACUBI Bidasoko Kon-tsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteak. Kontsulter kopuruak beherakada txikia jasan du 2014an, baina zerbitzu hurbila eta kalitatezkoa eskaintzeko lanean jarraitzen du egunero. Belén Martínez ACUBIko idazkaria azaldu digu zerbitzuen bilakaera zein izan den. Interes orokorreko beste hainbat datu ere azaldu digu.



- Zergatik jaitsi da kontsulter kopurua 2014an?

OMIC (Kontsumitzaileen Udal Bulegoa) udaltzaingoaren egoitzan zegoen lehen. Hara ez joateagatik, jende asko hona hurbiltzen zen. Orain San Juanera lekualdatu dute, eta hori da arrazoi nagusia. 2013an 1.799 kontsulta izan ziren eta 2014an 1.644ra jaitsi da.

- Zer zerbitzu eskaintzen duzue?

Egiten dizkiguten kontsulter erantzuten diegu. Erreklamazio bat egin

nahi izanez gero, bazkide egitea ezinbestekoa da. Horretarako, 15 euro ordaindu beharra dago lehen urtean, eta 10 hurrengoetan. Foruen Kaleko bulegoan lantzen ditugu erreklamazioak, eta laguntza juridikoa behar izanez gero, elkarreko abokatuaren esku uzten ditugu.

- Eguberriak pasa ditugu. Kontsulta asko izan da?

Beti izaten dira, aldaketak eta izultzeak batez ere. Eguberrien

bezperan gogorazten dugu erosi aurretik garrantzitsua dela erosketaren baldintzak jakitea, gero ezustekoak izan ez daitezten: itzultzerakoan dirua bueltatuko diguten edo ez, adibidez.

- Etzebizitzen merkatua aldatzen ari da. Nabaritu al duzue?

Bizilagunen elkarteekin eta alokairuekin lan handia izaten dugu. Joan den urteko ekainean hirietako alokairuen legea aldatu zuten, eta horrek hainbat arazo

eragin ditu. Lokalen alokairuen kontratuak desagertzea ere garrantzizko gaia izan da aurten. Informazio jardunaldia antolatu genuen Irungo Udalarekin elkarlanean, arazoak murrizteko.

- Argiak eta gasak ere problemak eragin ohi dituzte.

Azken aldian, merkatu libreria alda gaitezen egiten dizkiguten eskaintzeekin arazo handia dago. Kontu handiz ibili behar dugu aukerak onak dakartzaten saltzaileak etort-

zen zaizkigunean. Normalean beharpenak eskaintzen dituzte, baina prezioa puze duten aseguruak kontratatzea behartzen dute ondoren. Orain arte zazpi eguneko epea zegoen kontratua atzera botatzeko, baina gaur egun 14 eguneko da. Halakoak konpontzeko laguntza eskaintzen dugu.

Beste erosketa mota batzuekin ere berdina gertatzen da. Askotan, jende helduak ez du erreklamatzeko, seme-alaben aurrean huts egitea ez onartzeko. Hobe da onartzea eta lehenbailehen konponbidea bilatzea.

- Krisiak aldatu al gaitu?

Lehen, arinkeriaz kontsumitzen genuen; orain, moderazio handiagoarekin. Hori dela eta, erreklamazio gutxiago dago autoen salmenta bezalako sektoreetan. Kotxeak konpontzen dituzten tailerrei buruzko kontsulterak, berriz, gora egiten ari dira.

Krisiak on egin digu, kontsumoari neurria hartu diogulako. Alokairuaren prezioek behera egin dute. Telefoniari dagokionez, tarifa hobek bilatzen ditugu. Hala ere, badago lana: galtza parean erosteko asko konparatzen dugu, baina batzuetan erosketa garrantzitsuekin, ez.

- Hogeita hamar urte ditu elkarteak. Zein izan da bilakaera?

3.000 bazkide baino gehiago gara. Astean hogeitaz erabiltzaileen kontsulter erantzuten diegu. Beraz, bilakaera handia izan da. Elkarteak bakarrik ez. Ez ordaintzeak, alokairuak edo lantzen ditugun beste gai batzuk ere asko aldatu dira.

SAN VICENTE DE PAUL IKASTETXEA



2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
HH 2-3-4-5 urteko gelak MODELO D EREDUA				LH 1 1 ^a -2 ^a D EREDUA		LH 2 3 ^a -4 ^a B EREDUA		LH 3 5 ^a -6 ^a B EREDUA		DBH 1 ^a -2 ^a -3 ^a -4 ^a MODELO B EREDUA				

ATE IREKITAKO JARDUNALDIA / JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS: Otsailaren 4 de febrero. 16:45
AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA / PLAZO DE PREMATICULA: Otsailaren 2tik 13ra de febrero

Saskibaloari lotuta

Hamabost urte zituela hasi zen Ganix Miron irundarra saskibaloian jokatzen. Futbola eta eskubaloia ere probatu zituen, baina baloi laranja eta saskia gustatu zitzaizkion bereziki. Harrezkero, harreman estua izan du beti saskibaloiarekin. Erroibide-Irun elkarreko nesken talde nagusia entrenatzen du gaur egun. Estatuko Lehen Mailan jokatzen dute.



Ganix Miron, Azken Portuko saskibaloia kantxan.



Ezkerran, 2014-2015ko Erroibide taldea. Eskubian, Estrella Gonzalez eta Saray Arozena Tabiracoren aurkako partiduan.



Club Amigos del Baloncesto taldean eman zituen lehen urratsak Ganix Mironen. Osasuntsu zegoen Irungo saskibaloia 90eko hamarkadan. "Eskola guztiek bi edo hiru talde zeuzkaten, bai mutiletan, baita nesketan ere". Argi dauka maila handiagoa zela orduan. 1998an Hondarribiko Hondartzarekin elkartu zen Amigos del Baloncesto, Txingudi Saskibaloia Elkarte osatzeko. Mutilen sekzioa bertan behera gelditu zen orduan. Ganix Mironen Irundik alde egin behar izan zuen, saskibaloian jokatzen jarraitu ahal izateko. Besteak beste, Donostian eta Beasainen pasa zuen erbestealdia.

Duela hamar urte, Irungo La Salle ikastetxeko ikasle batzuek Erroibide Saskibaloia Elkarte sortu zuten, gurasoen lagun-tzaz, senior mailan saskibaloian jokatu ahal izateko. Albiste pozgarria izan zen Ganix Mironentzat: "Elkarerik ez zegoen, eta Irunen tamainako hiri batean larria da hori". Bilakaera handia izan du Erroibideek hamarkada honetan. Senior, junior eta kadete mailako taldeak ditu gaur egun, nesketan eta mutiletan. "Horrek esan nahi du Irunen zaletasuna badagoela", nabarmendu du Mironen. Zailtasunak ere baditu, noski; ekonomikoak, eta entrenatzeko azpiegiturei dagozkienak.

Arauzko neurriak dituen kantxa bakarra dago Irunen, Artaleku kiroldegikoa. Baina Bidasoa-Irunek dauka hura erabiltzeko lehentasuna. Bertan entrenatzeko aukera izaten dutenean ere, kantxaren heren batean egin behar izaten dute Erroibideko taldeek. Hortaz, Azken Portun edo Artalekun izan, arautegiak markatzen dituen neurrietara iristen ez diren kantxetan entrenatzen dute beti. "Partidetan espazioak handiagoak dira, eta hiruko marra urrunago dago", gogoratu du Ganix Mironen. Ohitura falta agerian geratzen da neurketetan.

Estatuko hirugarren ligan ari dira neskek

Duela bost urte hartu zuen Ganix Mironen Erroibideko nesken talde nagusia entrenatzeko ardura. Bi maila igo zituzten bi urtean. Gaur egun Lehen Mailan, estatuko hirugarren kategorian jokatzen dute. Liga zaila dela onartu du Mironen: "Estruktura handia daukaten taldeak daude. Baina guk ilusioarekin eta konpromisoarekin berdintzen ditugu gure gabeziak". Jaitsieraren arriskua hurbil dauka aurten Erroibidek. Azkenaurrena den Araba Araskik baino garaipen bakar bat gehiago lortu dute irundarrek lehen itzulian. "Zortzi-bederatzi jokalarirekin ari gara bakarrik, eta hori ordaindu egiten da", azpimarratu du Mironen.

Lan handia izaten du urtero entrenatzaileak taldea osatzeko. Hiritik kanpo jokatzen ari diren neskek erakarri izan ditu, klubak ez baitu Lehen Mailan aritzeko moduko neska multzo handia hazteko baliabiderik. Gainera, senior mailara iristerakoan kirola uzteko ohitura izaten du askok. Eragozpen handia izaten da Ganix Mironentzat: "Neskek badute afizioa, baina motibazioa falta izaten zaie". Zailtasunak zailtasun, erreferente bilakatzen ari da Erroibide Gipuzkoa mailan. "Beti izango ditugu muga batzuk, baina lan egiteko gogoia daukan jendea dagoen bitartean, aurrera egingo du klubak". Borondatezko lana da Erroibideren oinarria.




Gasolindegia

YRANZY, S.A.

Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN
Tels.: 943 62 51 83
Fax: 943 63 04 98
javier@avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com

Javier Aguirre Laso
Gerente

Gatazkaren biktimen lekukotzak bilduko ditu Antxeta Irratiak

Euskal Herriko gatazka politikoaren inguruko eztabaida gunea sortu nahi izan du Antxeta Irratiak. Horretarako, "Bidasoan elkarbizitza" jardunaldiak antolatu ditu, Lokarri erakundearekin elkarlanean, eta Hondarribiko, Hendaiaiko eta Irungo Udalen laguntzarekin. "Irrati elkarte da Antxeta, eta funtzio soziala ere badu bere baitan. Informatzeaz gain, herri honek behar duen aldaketen aktore eta eragile izan gaitezkeela uste dugu", azaldu du Aitziber Zapirain Antxeta Irratiko koordinatzaileak.



Aitziber Blanco eta Aitziber Zapirain jardunaldien aurkezpenean.



Jardunaldiek balio handia dutela azpimarratu du Aitziber Blanco Lokarriko ordezkariak. Urtetako indarkeriaren ondoren, elkarbizitza sustatzea beharrezkoa dela uste du: "Ezberdinak izanik, elkarrekin errespetuz eta giza duintasunez bizitzen ikasi behar dugu". Hiru mahai-inguru antolatuko dituzte Antxetak eta Lokarri, otsailean. Bi aldeetako bortizkeriaren biktimek, preso eta iheslari ohiek eta Txingudiko Badiako hiru alkateek parte hartuko dute. Aitziber Zapirainek nabarmendu du eskualdean izan diren zenbait gertakari gogortzeko edo ezagutzeko aukera emango dutela jardunaldiek: "Belaunaldi berriekiko transmisio lan handia egin behar dela iruditzen zaigu".

Otsailaren 5ean izango da lehen eztabaida, Hondarribiko Itsas Etxean, 19:00etan. Belen Zabalak,

Cristina Sagarzazuk, José Miguel Gómez Elosegui eta Fermin Urtizberek parte hartuko dute. Belen Zabala 1976ko irailaren 8an Guardia Zibilak hil zuen Josu Zabalaren iloba da. Sagarzazu ETAK 1996an erail zuen Montxo Doral ertzainaren alarguna da. José Miguel Gómez Elosegui Javier Gómez Elosegui Martuteneko espetxeko psikologoa zenaren anaia da. 1997.urtean hil zuen ETAK. Urtizberea, Hondarribian zinegotzi zela, GANE (Grupo Antiterrorista Nacional Español) taldeak bahitu eta torturatu zuen, 1988an. Lokarriko Aitziber Blanco izango da moderatzaile.

Otsailaren 12an Hendaiaiko Anton Abbadia aretoan egingo dute bigarren mahai-ingurua, 19:00etan. Joserra Trebiño apaiak, Juanra Rojo preso politiko ohiak, Jokin Etxebarria iheslari

politiko ohiak eta Miren Illarreta abokatuak parte hartuko dute. Moderatzaile lanean ariko dira Ellande Boutin eta Goizeder Taberna kazetariak. **Otsailaren 19an** Ficoba erakustazokan, Jose Antonio Santano Irungo alkatea, Aitor Kerejeta Hondarribiko alkatea eta Kotte Ecenarro Hendaiaiko alkatea ariko dira. Martxelo Otamendi Berria egunkariko zuzendaria eta Aitziber Zapirain Antxeta Irratiko koordinatzailea izango dira moderatzaileak. 19:00etan hasiko da saioa.

Hiru mahai-inguruak publikoak izango dira. Parte-hartzaile guztiek txartelak jasoko dituzte, idatzizko galderak eta iruzkinak egiteko aukera izan dezaten. Gainera, itzulpenak bermatuko ditu Antxeta Irratiak, frantsesera, gaztelaniara eta euskarara.



OTSAILAREN 2an 16:30ean ATE IREKIAK

Non: Haur Hezkuntzako eraikuntzan. Balezaleen kalea, 7, Irun

EGIN EZAZU AURREMATRIKULA OTSAILAREN 2tik 13ra, biak barne



Hasi da txotx denboraldia Ola sagardotegian



Aimar Irigoienek txotxetik edaten lehena izateko ohorea izan zuen. Denboraldia ofizialki ireki ondoren jai giroa izan zen nagusi Iñaki Begoetxearen Ola Sagardotegian.

Edalontzia bete eta altxatu ondoren, "hau da aurtengo sagardo berria" esaldi ospetsuarekin ireki zuen Aimar Irigoienek Olako txotx denboraldia. "Edan beldurrik gabe", gaineratu zuen Errezilgo harrijasotzaileak. Horixe egin zuten, jarraian, urtarrilaren 18an Irungo sagardotegian bildu ziren hamarnaka gonbidatuek, lagunek eta bezeroek ere. "Egun berezia da, eta jantokia txiki gelditzen zaigu", onartu zuen Iñaki Begoetxea nagusiak. Udaren amaieraz geroztik lanean gogor aritu ondoren, lagunartean gozatzeko aukera izan zuen Begoetxeak.

Sagardoaz eta ohiko menuaz gain, beste hainbat ezaugarri erakargarri izan zituen ekitaldiak. Patxi Urtizberearen eta Arantxa Lasalderen txalaparta doinuek eman zuten sarrera. Lasaldek berak agurra jo zuen txistuaz, Enekoitz Urtzegik dantza egin zezan. Aimar Irigoienek sagardoa dastatu ondoren, Aitor Mendiluze eta Unai Agirre bertsolariek hartu zuten lekukoa. "Esaten da sagardotegietan beti egin izan dela bertsotan, eta polita da hari horri eustea", azpimarratu zuen Agirrek. Trikitixa eta pandero joleekin tartekatatu zuten bertsolariek bazkalorduko garaia girotzeko ardura.

Kiroleko edo telebistako jende ezaguna ere izan zen Olan. Gustura aritu zen Julian lantzi aurkezlea, familiarekin bazkaltzen eta kupeleen inguruan lagunak agurtzen. Gurutz Aginagalde eskubaloiko atezainak Ruben Garabaya Naturhouse La Riojako taldekidea eraman zuen. Asturiarra izanagatik ere, sagardo euskalduna dastatzen ibili zen. "Ohitura polita da, eta etorri ahal izanez gero, gustura hartzen dugu", onartu zuen Aginagaldek. Datorren urtean ere, egutegiak tarte bat uzten badio behintzat, Olara itzuliko da. Ez da errepikatuko duen bakarra izango.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Gune ba-koitzean erroldaturik dauden hurrek lehenetasuna izango dute gune horri dagozkion ikastetxeetan.



2015-2016 ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko epea ireki da

Ikastetxe publiko zein itunpekoetan HHko, LHko eta DBHko ikasleak otsailaren 2tik 13ra aurrematrikulatu daitezke

EPEA: Otsailaren 2tik 13ra, egun hori barne (otsailaren 12a on-line aurre-matrikularako).

IKASTETXEAK:

Publikoak eta itunpekoak (ikus plana).

HAURRAK:

2012an eta 2013an jaiotakoak.

PROZEDURA:

1. Lehenesten diren ikastetxeak aukeratu behar

dira (3 aukera).

• Hiru ikastetxe aukeratzeko lehenetsun ordenaren arabera. Ikastetxe baterako eskabide-kopurua libre dauden plazak baino handiagoa bada, legedian aurrekusten den baremoa aplikatuko da plazak esleitzeko.

2. Ondoko dokumentazio hau bildu behar da:

- Familia Liburuaren fotokopia.
- NANaren edo TIEren fotokopia.
- Ikaslearen Bizikidetzaren Errolda txartela (Errolda Ziurtagiri Kolektiboa). Zure Irun Txartela erabiliz lor dezakezu.
- Puntuazioak lortzeko balio duten beste egoera batzuk (ezintasunak, lantokiaren egoitza, familia ugaria) egiaztatzeko agiriak.

- 2013ko Errentaren Aitorpena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin ez bada.

3. Dokumentazioarekin aurkeztu behar da ikastetxean (lehen aukera bezala hautatuan) edo, bestela, eskaera

on-line egin (www.hezkuntza.net)

(www.zuzenean.euskadi.net).

4. Eskatzaileen zerrendak, behin-behineko eta behin betiko zerrendak begiratu behar dira, baita ikastetxean bertan argitaratu egingo diren bigarren eta hirugarren aukera eskaintzen duten zerrendak ere; zerrenda horiek ikastetxeetan bertan argitaratuko dira otsailaren 24an, martxoaren 5ean, martxoaren 26an, eta apirilaren 15ean hurrenez hurren.

EPEA
OTSAILAREN 2tik 13ra

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboa, laboral, kontularitza eta zergenak

Ibilgailuen eskualdaketa

Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitortpenak

Aseguru orokorrak

Eta abar...

Txingudi Ikastola BHI

TXINGUDI IKASTOLAKO
LABORATEGIKO EZTANDA

Txingudi ikastolan, laborategi gelan eztanda bat egon zen, ikasle baten erruz, esperimendu bat egiten ari zenean.



Uxue Gorospe Fuentes

Txingudi ikastolan, laborategi gelan eztanda bat egon zen, ikasle baten erruz, esperimendu bat egiten ari zenean.

Irungo Txingudi Ikastolan sute bat

egon zen ikasle batzuek laborategian esperimendu bat egiten ari zirela.

Metxero bat piztu eta boligrafo bati sua eman behar zioten delako ariketa egiteko, baina, ustekabean, ikasle horietako batek paper bat erre eta likido arriskutsu batekin kontaktuan ipintzean, eztanda sortu zuen.

Leherketa horren ondorioz ikasle guztiei ilea erre zitzaien eta Irungo ileapaindegi batera joan behar izan zuten inplanteak jartzeko; ileapaintzaileak esan zien ezin zuela horrelakorik egin, azala erreta zeukatelako, eta itxaron beharko zutela larrua bere onera etorri arte; horregatik ikasle guztiak burusoilak geratu ziren... mementuz, eta ez dira ausartzen kalera ateratzen, daukaten piura dela eta.



PRENTSA TAILERRAN, ohiko aldizkariak gain, beste bat lantzen dugu, satirikoa; bertan errealtatean gertatutako edo asmatutako berri barregarriak ekoizten dituzte ikasleek; hona hemen horietako bat.

PINTEREST APARRA BEZALA HAZTEN ARI
DA, ETA ARRAK EHIZATZEARI EKIN DIO

Duela bi urte sekulako gorakada izan zuen eta, aspaldi honetan irudiekin diharduten sareen artean Instagramen hazkuntza denen ahotan badago ere, 2014an Pinterest izan da hazkunde errelatibo handiena izan duen sare soziala. Hain zuzen, erabiltzaileen kopurua % 57 handitu da, eta erabiltzaile aktiboena, %111.

Beharbada badakizue Pinterestek arrakasta nabaria duela emakumezkoen artean, erabiltzaile aktiboen artean emakumezkoen portzentaje handiena duelako sare sozial orokorren artean. Global Web Index-ek Estatu Batuetan egindako azken azterketaren arabera, emakumeak %71 dira, eta, gainera, 34 urtez azpikoak %65 dira.

Hortaz, badakizu, 34 urte baino gutxiagoko emakumea bazara eta Pinteresten ez bazaude, zerbait interesgarri samarra galtzen ari omen zara.

Baina badirudi honek apur bat kezkatzen duela Pinterest; izan ere, plataforma dirutan sustatu nahian enpresei publizitatea jartzen aukera ematen die orain, eta gizonezkoak bazter uztea publizitatearen tartaren zati oso handi bati uko egitea da.

Horregatik, Pinteresten saiatzen ari dira bilaketa-kategoria "maskulinoagoak-edo" txertatzen; hala nola, "autoak eta motorrak", "gizonezkoen moda" eta, adit: "piz-zak eta tacoak".

Nik, gizon honek, ez dut halakoen beharrik batere, dagoeneko behar dudana guztia aurkitzen dudalako gero eta maizago erabiltzen dudana sare sozialean. Sormen kontuetan gabiltzanok ezin gara egon musak egunero goizeko 8:30etik aurrera bisitan inspiratzera etorriko ote zaizkigun zain. Hortaz, baliabide prosaikoagoak darabiltzagu.

Neure kasuan, Pinteresten barna paseatzea ohitura ia saihestezin bilakatu zait ezerein proiekturi ekin aurretik. Bilaketa-parametro bat sartu eta sareratzten naiz, azken joera estetikoegi begira, infografia batzuk zeharka irakurrita, esteka harri-garrien bila... buruan orijinaltasunaren txinparta noiz piztuko.

Eta balio izaten dit. Bene-benetan gomendatzen dizuet probatzea. Bizitza honetan ia dena bezala, praktikatzea ez da aski, eta besteek zertan diharduten ikustea eta ikastea ere baliagarria da, geure ikaskuntzan denbora irabaz dezagun.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bilbao, Zuboga, Kizilua, Bilasoa, Real Unión, Txingudi al Nabia, Puente en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desde nueve metros



RENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zubioga, Kizilua, Bilasoa, Base Urbina, Txingudi al Nabia, Puente en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bilbao



Hamabi urte bete ditu Ainhoa dantza akademiak Irungo Arbelaitz kalean. Hiriko hainbat ikastetxetan eskolak ematen aritu ondoren, lokala hartzea erabaki zuen Ainhoa Pardok, 2003an. Ikasleen kopurua handituz joan da etengabe, goia jo duen arte. “Pena da, baina leku faltagatik ezin dut jende gehiago hartu”, azaldu du Pardok. 250 ikasle baino gehiago dauzka gaur egun. Akademiaren arrakastaren gakoak eman ditu, inauterietako desfileko azken xehetasunak prestatzen ari den bitartean.

Ainhoa Pardo:

“Gustatzen zait koreografiak egitea eta mozorroak prestatzea”

- Zergatik erakartzen du hainbeste jende Ainhoa Akademiak? Zerk egiten du berezi?

Familia txiki bat gara, eta gurasoek asko baloratzen dute hori. Nire ikasle guztien izen-abizenak dakizkit, eta hiruzpalau egunetan gai naiz haien izaera antzemateko. Oso harreman estua izaten dut hurrekin, baita gurasoekin ere. Konfiantza ematen diedala uste dut. Gainera, egiten dudana asko gustatzen zait.

- Neskak al dira oraindik ikasle gehienak?

Zoritxarrez, bai. Lauzpabost mutil izaten dira berrogei ikasleko. Nik mutilak prestatu izan ditut dantza

egiteagatik kalean jasan beharko zituztenei jaramonik ez egiteko. Triste da, baina etxeetan sartuta ditugu oraindik aurreiritzi horiek.

- Urteko ekintzen artean, zer nolako garrantzia dute inauteriek?

Oso handia. Kontuan hartu behar da urtean zehar gutxi mugitzen garela. Gabonetan aktuazioen bat zahar-etxeren batean, urteroko emanaldia gurasoen aurrean... Denak leku itxietan izaten dira, eta ikusleak, berdinak. Inauterietan publiko zabala izaten dugu, eta hori da arrazo nagusia. Ni ez naiz oso inauteri zalea, baina gustatzen zait koreografiak prestatzea eta mozorroak egitea.

- Zer prestatu duzue aurten?

Disneyren Frozen pelikula izango da gaia. Bolo-bolo dabil azken aldian, eta haurrak pozez zorutzen daude. Denbora asko generaman ipuinetako gaiak aukeratu gabe. Nik hautatzen ditut, baina saiatzen naiz ikasle guztiengan pentsatzen. Hala ere, zaila da denak konforme edukitzea.

- Lan handia al du konpartsa antolatzeak?

Errazena koreografiak prestatzea da. Nire lana da, eta klaseetan egiten dugu. Mozorroek lan handiagoa eskatzen dute. Ni oihalak moztzen eta antolatuta ematen saiatzen naiz, gastua aurrezteko.

Inauteriak ezin du familia osoaren hilabeteko aurrekontua baldintzatu. Nire ustez, hori ez da bidezkoa. Gure mozorro garestienak 32 euro balio du aurten.

- Zein zailtasun izaten da desfilearen egunean?

Edozer gerta daiteke. Behin musika-ekipoaren generadorea gelditu zitzaigun, Colon Pasealekuaren erdian. Bestalde, urtero, konpartsa guztiak azkarrago joan behar dugula esaten digute antolakuntzakoek. Korrika egin behar izaten dugu, dantzatu gabe. Betiko arazoa da hori. Konpartsa bakoitzak bere musika eta bere koreografia dauka, eta ezi-

nezkoa da denek erritmo berdina eramatea.

- Otsailean izanda, eguraldia da beste arazo nagusia.

Nik ez dut uste euriagatik desfilea bertan behera utzi behar denik. Data atzeratzeak kostua areagotu egiten du musika-ekipoa edo furgoneta alokatu behar dugunontzat. Beste kontu bat da haizearen ondorioz, egoera berran arriskutsua denean. Euria besterik ez baldin bada, desfilearen ondoren ondo lehortu, eta listo. Bestela, desfilearen data aldatu behar baldin badugu, jar dezagun uztailan.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





Ikastaroak

- GRABATU HASTAPENERAKO TAILE- RRA. LINOGRAFIA.

Zer? Bitamine Faktoriak tearen orduan esku-inprimaketako tailer-programa berri bat sortu du. Lehenengo tailer honetan, parte-hartzaileak grabatuaren teknikara sarraraziko ditugu, diziplina honetan erabiltzen den material bigunenarekin hasita: Linolia.



Norberak egindako diseinuetatik abiatuko gara, grabatuaren aukeretara moldatuz; adibidez, esaldi, hitz, marka edo logo bat pieza aproposak dira.

Egunak? martxoak 6 eta 7

Ordua? 15:00 - 19:00

Lekua? Irun Factory (Loidi Bizkarrondo kalea, 8 behe)

Prezioa: 50 euro (materialak barne)

Izen emateak? emailuz: faktoria@bitamine.net

- DENBORA LIBREKO MONITORE, BEGIRALE, ZUZENDARI... IZATEKO IKASTARO TRINKOA



Non? Ribagordan (Cuenca) eta La Vecilla de Curueñon (Leon)

Informazio gehiago: 987 215 600 / 660 951 040, www.alquite.com, alquite@alquite.com.



Deialdiak

- AUZOLANDEGIAK 2015 PROGR- MAREN KARTELA ZUK EGIN DEZA- KEZU.

Zer? Teknika ezberdinez balia zaitezke: argazkiak, marrazkiak, colageak etab. Irudiarekin batera, gazteak programan parte hartzera animatzeko aproposa den lelo bat ere bidali behar da.

Saria? Aparteko bidaia bat.

Izen emateak? gazteaukera@gmail.com.



- MEAKAKO ARGAZKI LEHIAKETA



Gaia? Irungo Meaka auzoa

Noiz? Martxoak 15 arte.

Saria? Bi pertsonentzako afaria Amona Kattalin edo Ola Sagardotegian.

Nora bidali lanak? avvme-aka@gmail.com

Antolatzailea? Meakako Auzo Elkartea.



Bekak

- DEIALDIGILEA: AMANCIO ORTEGA FUNDAZIOA

Zer? Amerikako Estatu Batuetan Batxilergoko 1. kurtsoa ikasteko 100 beka, eta Kanadan Batxilergoko 1. kurtsoa ikasteko beste 100 beka.

Baldintzak? Espainiako pasaporte izatea. DBHko 4. mailako ikaslea izatea Espainiako ikastetxeetan. Gutxieneko batez besteko nota: 7,5 (DBHko 3. mailan). Gutxieneko ingeleseko nota: 8 (DBHko 3. mailan). Atzerrian DBHko mailarik ikasia ez izatea.

Epea? Otsailak 9



irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

LAN ESKAINTZA



Lan bila zaude? i-gazteko web gunean eguneroko lan eskaintzak, asteburukoak, oposizioak, eta abar aurkitzeko aukera izango duzu.

Non sartu? www.irun.org/igazte



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



Otsailak 7

Carlos Jeanen kontzertua



Non? Cafe Irunen

Prezioa? 12 euro aurrez aurrekoa, 15 takilan.

Informazio gehiago: www.cafeirun.com



Inauteriak 2015

Inudeen eta artzainen konpartsa

Noiz? Otsailak 8
Ordua? 12.00etan
Non? Santiago Karrikan hasi eta Luis Mariano kalean amaituko dute

Zanpantzar Konpartsa (Ostegun Gizena)

Noiz? Otsailak 12
Ordua? 19.00etan
Non? Alberto Anguera-tik Zabaltza plazaraino.

Inauterietako konpartsen aurkezpena

Noiz? Otsailak 13
Ordua? 20.00etan
Non? Amaia K.Zn

Baserri giroko inauteria

Noiz? Otsailak 14
9:00etan: Eraiki Dantza Taldea Bidasoa eta Behobia auzoetan.
9:30ean: Ibarla Meaka Dantza Taldea Meakan.
10:00etan: Txorimaloak Soinu Taldea Anakan.

Euskal herri inauteriak

Noiz? Otsailak 14
Ordua? 12.00etan
Non? Pio XII. Plazatik Erromes plazaraino

Inauteri larunbateko desfileal

Noiz? Otsailak 14
Ordua? 17.00etan
Non? Irteera: Letxunborroko hiribidetik
Helmuga: Nafarroko hiribidera

Inauteri igandeko desfileal

Noiz? Otsailak 15
Ordua? 17.00etan
Non? Irteera: Letxunborroko hiribidetik
Helmuga: Nafarroko hiribidera

Sardina Lurpertzeko eta Zanpantzar erre-tzeko komitiba

Noiz? Otsailak 17
Ordua? 19.30etan
Non? Zabaltza plazatik San Juan Plazara

"MOCEDADES"-EN KONTZERTUA IRUNEN

Noiz? Otsailaren 7an.
NON? Amaia K.Z.
ORDUA? 20:00etan.
PREZIOA? 25 euro.
Non eskuratu sarrerak? Turismo Bulegoan, edo Amaia K. lehiatiletan kontzertu-egunean bertan, sarrera guztiak agortu arte. Interneten: www.kutxasarrerak.net.



Mocedadesen historia Bilbon hasi zen hirurogeiko hamarkadaren amaieran. Nazioartean «Eres Tú» abestiarekin izandako arrakastaren ondoren, Mocedadesek arrakasta bat bestearen atzetik izaten jarraitu zuen hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan. Mocedadesen historia

honek jarraitu egiten du gaur egun ere zuzenean egiten dituzten saioekin eta disko berri batekin.



Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN **+34 943 628 333**
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PISU ETA LOKALAK SALGAI



Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldia, trasterokua, bermeak eta elektrikoak, hegaldieruntz, eguzkitua eta beste poltekin. Aferkaleku barne.

Ref: 04297 119.000 €



Pisua salgai Hendaya
Azalera 65 m², 2 gela bikotz, bainugela, komuna, egongela, sukaldia, terraza, trasterokua, berogailu elektrikoa, hegaldieruntz, eguzkitua eta beste poltekin. Aferkaleku barne.

Ref: 03511 190.000 €



Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldia, sukaldia, berogailu elektrikoa, hegaldieruntz, eguzkitua eta beste poltekin. Pisuzaharretaraino.

Ref: 04333 155.000 €



Pisua salgai Mendelu
Azalera 75 m², 3 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldia, terraza, trasterokua, berogailu elektrikoa, hegaldieruntz, eguzkitua. Garajea barne.

Ref: 04302 240.000 €



Pisua salgai Irun Palmira
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, balkoi, trasterokua, joozailua, berogailu elektrikoa, hegaldieruntz, eguzkitua.

Ref: 04298 248.000 €



Pisua salgai Irun Erdia
Azalera 60 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldia, sukaldia eta berogailu elektrikoa. Pisuzaharretaraino. Lehengo pisu joozailurik gabe.

Ref: 04329 120.000 €



Lokai/garajea salgai Irun Dunboa
Azalera 140 m², komuna, berogailu elektrikoa, berogailu elektrikoa. Bi lokai dira baina bakarra erosi ahal da.

Ref: 04048 259.000 €



Lokala salgai Irun San Juan
Azalera 40 m², komuna eta eskaparate poltu. FRIMERAKO AUKERA!!

Ref: 04305 210.000 €



Lokala salgai Irun Dunboa
Azalera 50 m², komuna, eskaparate, bulego, berogailu elektrikoa eta beste poltekin.

Ref: 04279 65.000 €


Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

ERAKUSKETA

Zer? "Ciudad de Calahorra" Pintura Lehiaketa.
Noiz? urtarrilaren 23tik otsailaren 22ra (biak barne).
Non? Amaia K.Z.n
Prezioa? Doan.



Zure erosketa Irungo Merkaturan
egin nahi baduzu baina joaterik
ez baduzu, egin Internetez



Txartel hau aurkeztuz,
garraio zerbitzua dohainik
DTO-Irunero-1415

 laplazadeabastos.com
Betidaniko erosketa, orain on line